



ITURLANDETAKO BIZILAGUNEN IDATZIARI ERANTZUNA

Iturlandeta auzoko bizilagun batzuek beilatokiaren inguruan argitara eman duten idatziaren aitzinean, ondorengo kontuak argi utzi nahi ditugu:

Udal hau bi aldiz elkartu da Iturlandetako bizilagunekin, eta beharrezko azalpenak eman dizkie.

Auzotarren eskaera nagusia ordenantza aldatzea da. Ordenantzen aldaketa posible bada ere, kasurik azkarrenean ere gutienez bi hilabete beharko lirateke eta ez litzateke indarrean sartuko aldaketaren prozesua bukatu arte. Beraz, ez luke inolako eraginik izanen bitarte horretan eskatzen diren baimenei, eta ondorioz, Udalak inolaz ere ezinen luke ukatu tramitean dagoen beilatokia irekitzeko eskaera. Tramitean den lizentzia, eskatzen zaigun bezala inolako arrazoi juridikorik gabe ukatzea prebarkazioz jokatzeko litzateke. Eta horretara bultzatu nahi gaituzte.

Iturlandetako bizilagunek diote ordenantza aldatu nahi dutela "gainerako herritarren mesederako, ez inori gertatzeko haiei egokitu zaiena". Arauak birplanteatzeko aukera badago beti, baina egitekotan gaia sakonki aztertu behar da, presarik gabe eta justifikatuz.

Eta zein litzateke horretarako justifikazioa? Non daude arrazoiak? Egun gure herrian dagoen beilatokia auzune batean kokatua dago, zahar etxearen ondoan, eta bertzelako zerbitzu batzuegandik hurbil (osasun zentroa, musika eskola...), eta ez da inoiz arazorik izan, ez auzo horretan bizi diren hurrekin, ez zahar etxean bizi direnekin...

Bizilagunek, bertzetik, beilatoki-zerbitzua publikoa izatea proposatzen dute. Udalak asumitu behar al du bere zereginetan, orain arte beregain ez duen zerbitzu berri bat? Guk zerbitzu publikoak defenditu izan ditugu beti, baina ikusirik Berako Udalak azpikontratatuta duen zerbitzu kopurua, gaiak azterketa sakona behar lukeela uste dugu. Zein zerbitzu publikizatetik hasi beharko genuke? Haur Eskola? Kiroldegia? Kale garbiketa? Udal eraikinen garbiketa? Eta, ezbairik gabe, horrek Udalaren egoera ekonomiko eskasean izanen lukeen inpaktua neurtu beharko litzateke, bertzelako inbertsio eta zerbitzu batzuegan izanen litzuzkeen ondorioak zein diren ezagutu beharko litzateke.

Aspalditik Udalean ezaguna da Irachek beilatokia lekuz aldatzeko asmoa duela. Azkeneko legegintzaldietan, gutienez, Udalarengana jo izan du beilatoki berri bat kokatzeko lokal edo eremu publiko bat eskuratzeko aukera aztertzeko, eta inongo gobernu-taldek ez dio lehentasunik eman gai honi. Ondorioz, Irachek, bere urratsak eman ditu bere aldetik.

Bizilagunek Udala eta zinegotzi baten aipamena egitean, susmoa sortu nahi izan dute, hauen lana eta jokabidea zalantzan jarrita. Zinegotzi horrek baimena emateko botoa duela diote; hori gezurra da, erabaki hori, bertze hainbat erabaki bezala, ez da plenoan hartzen, baimen horrek ez duelakoz bozketarik eskatzen, alkatearen ebazpenaren bidez ematen da, beharrezko txosten (arkitektuarena, ingurumeneko teknikariarena, Nafarroako Gobernuarena) eta tramiteak bete ondok.



Idatzian Udal honen jarduera inolako frogarik gabe zikintzeko ahalegina egin dute bizilagunek. Aitzinetik Udala eta Iracheren arteko adostasuna bazegoenaren susmoa zabaltzen dutenean, bizilagunen eskariei entzungor egiten geniola leporatzerakoan, hori ere gezurra da. Onartezina da udal taldearen lana honela ziprztintzea, eta argi utzi nahi dugu, uneoro, zuzentasunez eta gizalegez jokatzten dugula, aunitzetan erabaki horiek kostu pertsonala badute ere.

Bera, 2014-08-12.

MARISOL TABERNA
BERAKO ALKATEA



ITURLANDETA KO BIZILAGUNAK
Estibaliz Arambillet Garcia